


## Arrivare a Venezia

Aldageltokia Venezian, Italia

Pablo de la Hoz

ETSAM, Escuela Técnica Superior de Arquitectura de Madrid, 2009

Tutorea: Iñaki Ábalos





Venezia 120 uhartek osatzen dute. 590 km<sup>2</sup>-ko urmael zingiratsu batean dago, Po eta Piave ibaien artean, Adriatikoan. Ez du harresirik; izan ere, urmaela ez da oso sakona, eta hori oso eraginkorra izan da beti hiria babesteko. Antzina, ur haietan ibiliak ez ziren itsasontziak erraz hondartzen ziren; hori dela-eta, bake-garaian, sarbideak adierazteko, makilak jartzen ziren, eta piztu egiten ziren gauzez. Sarbide haiek erabiltzen dira, gaur egun, itsasotik hirira sartzeko, eta, bertatik, gurutze-ontzi handiak igarotzen dira, Veneziako portura iristeko.

Gaur egun, portua da Venezian sartzeko bide nagusia, bai itsasotik, bai lehorretik, bertara iristen baita hiria eta lehorra lotzen dituen zubi bakarra. Hori da autoz egin daitekeen hiriko azken zatia; bertan utzi behar dugu autoa, aparkaleku-erakin handietako batean. «People mover» izeneko tren arina hartuta, aparkaleku-erakinetatik Piazzale Romara iritsiko gara, eta bertatik hirian sartu.

Aparkaleku-erakinak, gurutze-ontzien terminala eta tren arinaren geltokiak bereizita daude; beraz, zailtasunak daude haiek lotzeko. Gainera, horrek industria-portuaren itxura ematen dio. Hori konpentsatzeko, proiektuaren bidez eraikin mota bat aurkitu nahi da, azpiegitura horien guztien artean sartu eta lotu egingo dituen; horrela, inguruak kohesioa izango du, eta apur bat hiritartu ere egingo da.

Eraikina toki zailean dago. Haren mutur bat hirira sartzeko zubiaren azpian geratzen da, eta beste muturrak, 450 metrora, gurutze-ontzietako bidaiariak hartzen dituen eraikina ukitzen du. «People mover» tren arinak erditik zeharkatzen du eraikina; eta portura sartzeko errepide nagusiak, berriz, goitik behera. Hala ere, nahiz eta hainbeste elementuk zeharkatzen duten eraikina, oinezkoentzat bakarrik den eremu bat sortzen da, azpiegitura guztiak lotzen dituen. Hortaz, eraikinak bi ezaugarri ditu: batetik, azpiegituretakoa eraikina da; eta, bestetik, Veneziara iristean ikusten den lehenengo elementu hiritarra da.





Irdia - Irudi nagusia. Axonometria.

Eraikina hiriaren gelurre modukoa da, eta hura formalki eta materialki zehaztean, probetxua ateratzen zaio anbiguitasun horri. Luzea eta txikia da, sekzio okerrekoa, eta geruzatan antolatuta eta eraikita dago. Beheko zatian, aparkaleku handi bat eta portura sartzeko errepideak daude. Erdian, oinezkoentzako eremu handia, hirira iristean eta hiritik irtetean bisitariak behar dituen espazio eta zerbitzu guztiak dituena. Ondoren, zerranda moduko tarte batean hainbat programa daude, baita «People mover» trenaren geltokia ere. Azkenik, eraikinak bi bolumen ditu zerrandaren gainean, portuko zuzendaritzaren bulegoak eta hotel bat kokatzeko.

Programa geruza edo estratu horizontaletan antolatzearen logikak jarraitutasun konstruktibo eta materiala du. Aparkalekua hartuko duen beheko geruzetako egitura hormigoizkoa da; eta goiko geruzetan, berriz, egitura

altzairuzkoa da. Era berean, beheko fatxada hormigoizko modulu aurrefabrikatuekin egin da; goian, berriz, beirazko geruza hirukoitzaren sistema erabili da. Horren ondorioz, bi egoera konstruktibo oso desberdinak agertzen dira. Bien arteko banalerroa eraikin osoa zeharkatzen duen eremu publikoa da, hots, egur eta harrizko gainazal jarraitua.

Eraikina 450 metro luze da, eta 115.000 metro koadroekin, arkitekturaren eta hirigintzaren artean dago. Bere tamainari esker, eraikinak nabarmen hiritartu dezake ingurua, une honetan azpiegiturez betea. Aldi berean, haien funtzionamendua optimiza dezake, oinezkoentzako eremu baten bidez lotuko baititu azpiegiturek, eta erlaziozko zerbitzuak eskainiko baititu bidaiariak behar dituen lekuetatik hurbil.

